



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA SAILA  
Bazkunen Errolda

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Registro de Asociaciones

## ESTATUTUAK

### ELKARTEAZ OROHAR

### LEHENENGO ATALBURUA

#### IZENA

1. Atala.-Arabako Napatheid Gazte Elkartea izeneko Gazte Elkartea osatu da, Legebiltzarrak onartutako Otsailaren 12ko 3/1988 Elkarteen Legean ezarritakoaren arabera eta Euskadiko Autonomi Estatuaren 9. atalean azaltzen denarekin bat.

Aipatutako Gazte Elkarreak honako araubidea izango du: Elkarteei buruzko legea, Estatutu hauek berak - Legearen aurkakoak ez badira, beti ere -, bere zuzendaritza-batzordeak behar bezala hartutako erabakiak - Legearen eta/edo Estatutuen aurkakoak izan ezik - eta Eusko Jaurlaritzak onar ditzakeen araudi mailako erabakiak; azken hauek osagarri besterik ez dira izango.

#### ELKARTEAREN HELBURUAK

2. Atala.- Elkarre honen helburu orokorrak hauek dira: gazteriaren sustatzea, giza integrazioa eta solasa. Are zehatzago ondoko hauek: Euskera sustatzea gazteen artean komikiaren bitartez eta euskalkien erabilpena komikietan bultzatzea.

Helburu horiek lortzeko honako ekintza hauek eramango dira aurrera, ezarritazko legezko baldintzak bete ondoren:

1. Napatheid komiki-aldizkarian eta honen gehigarrian, Gato Bazkan, prestaketa lanetan parte hartu.
2. Komikiaren ingururan erakusketak eta mahai inguruak antolatu.
3. Komiki azoka eta ihardunaldietan parte hartu, euskal komikia ezagutarazteko eta beste ingurunetako komikia ezagutzearren.
4. Beste herrietan komikiaren inguruan mugitzen diren gazte elkarreekin harremanak sendotu eta interkanbioak burutu.

AGUIRANE



EUSKOAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Registro de Asociaciones

Aurreko ataletan azaldutako ekintzen kaltetan gabe, Elkartek, bere helburuak betetzeko, zera ere egin ahal izango du:

- Bere helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko edo era guztietako ekonomi ekintzak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak eskuratu eta eduki, eta mota guztietako ekintzak eta hitzarmenak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, beti ere legeekin eta bere Estatutuekin bat etorritik gero.

### ELKARTEAREN EGOITZA

3. Atala.- Elkarte honen egoitza nagusia ondokoa izango da: Federico Baraibar kalea 14, 5. esk, Gasteiz.

Elkartek, horretaz gain, beste biltokirik eduki dezake, bai Autonomi Elkartean eta bai kanpoan ere, Batzar Orokor Bereziak horrela erabakiz gero. Elkarte-egoitza edo Elkartearen beste tegiren bat tokiz aldatzeko erabakia Zuzendaritza-Batzordeak hartuko du, eta horrek Elkarte-Erroldari helbide berriaren berri emango dio.

### LURRALDE EREMUA

4. Atala.- Elkarte honen ekintzak lurralde-eremu honetan gauzatuko dira nagusiki: Araba.

### IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAUUA

5. Atala.- Arabako Naphtheid Gazte Elkartea izeneko Gazte Elkartea betirako eratzen da. Elkartea, ohiz kanpoko Batzar Orokor Bereziaren erabaki bidez desegin ahal izango da soilik, VI Atalburuan esaten den bezala, edo legeetan jasotako arrazoiren batengatik.

Elkartearen barne-eraketa eta barne-iharduera demokraziaren arauzkoak izango dira.

### BIGARREN ATALBURUA

#### ZUZENDARITZA ETA ADMINISTRAZIO-SAILAK

6. Atala.- Elkartearen Zuzendaritza eta administrazioaren arduradunak honako lan-sailak izango dira.

Bazkideen Batzar Orokorra, lan-sail gorena.

- Zuzendaritza-Batzordea, zuzendaritzaren lan-sail iraunkorra.

AGURTZANE

## Batzar Orokorra



7. Atala.- Bazkide guztiak osatzen duten Batzar Orokorraren bidez adieraziko dira bazkideen nahiak. Ohizko bilera eta bilera bereziak egingo ditu.

8. Atala.- Batzar Orokorraren Ohizko bilera egiteko deia gutxienez urtean behin egin beharko da: lehen hiru hilabeteetan izango da, eta honako puntu hauek onartzeko: Elkartearen lan-egitamu orokorra, aurreko urtean izandako gastu eta diru-sarrerei dagozkien kontuen egoera-orria, hurrengo urteko aurrekontua, eta Zuzendaritza- Batzordearen Kudeaketa. Zuzendaritza-Batzordeak Batzar Orokorraren arauekin bat eta haren kontrolpean ihardun beharko du beti.

9. Atala.- Aurreko atalean jasotakoaren kaltetan gabe, Batzar Orokorrak ondoko erabakiak hartzeko ahalmena du:

1. Estatutuak aldatzeko, hurrengo atalean jasotakoaren arabera.
2. Zuzendaritza-Batzordea aukeratzeko.
3. Elkartea desegiteko, hala badagokio.
4. Beste Elkarrekin batzurrekin Federakuntza edo Konfederakuntza osatzeko edo horietakoren batetik ateratzeko.

10. Atala.- Batzar Orokorra Zuzendaritza-Batzordeak erabakitakoan batzartuko da bilkura berezian, bere kabuz edota bazkideen %20 ak eskatuta. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dituzte. Dena den, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilera egin beharko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkartea desegiteko.

11. Atala.- Batzar Orokorrerako deiak, nahiz ohizkoak nahiz bereziak, idatziz egin beharko dira, eta bilera-tokia, eguna, ordua eta Aztergaien Zerrenda azaldu. Deia egiten den egunetik Batzarra lehenengo aldiz egingo den egunera bitarteko epea gutxienez 2 egunekoa izango da. Batzarrerako bigarren deia egitea egokituko balitz, egingo diren bi batzarren artean gutxienez 48 ordu igaro beharko du.

Iragarkian ez balego jasota 2. deialdi-eguna, batzar-eguna baino 7 egun lehenago azaldu beharko da noiz izango den.

12. Atala.- Batzar Orokorrak, bai ohizkoak eta bai bereziak, baldinok gertatuko dira lehenengo deialdian, bazkideen erdia baino gehiago bertaratuz edo ordezkotzarik egonez gero. 2. deialdian, berriz, edozein delarik ere bertaratutako bazkideen kopurua.

Bazkideek, beste bazkideren baten gain utzi dezakete beraien ordezkotza Batzar Orokorreran parte hartzeko. Ordezkaritza hori, idatziz egin beharko da eta Batzarreko Idazkariari eman bilera baino 24 ordu lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herrian bizi ez diren bazkideek ordezkari bat beste baten esku uzteko adierazten duen agiria postaz bidali dezakete.

13. Atala.- Batzar Orokorraren erabakiak botu-gehiengoz hartuko dira.

AGURTEANE



20. Atala.- Zuzendaritza-Batzordearen betebeharrak hauek dira:

- a) Elkartearen ohizko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren arauen arabera bere esanetara.
- b) Elkartearak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.
- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera onartzea Batzar Orokorrari, honek onar ditzan, aurkeztea.
- d) Batzar Orokorraren bileretako aztergai-zerrenda egitea, eta ohizko Batzar Orokorraren eta berezien deialdiak erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horretarako behar diren neurriak hartzea.
- f) Batzar Orokorrak berari izendatuta ez duen beste edozein eginkizun.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Registro de Asociaciones

21. Atala.- Lehendakariak eta, hala balegokio, lehendakariordeak erabakitako bakoitzean egingo ditu bilera Zuzendaritza-Batzordeak, euren kabuz nahiz batzordekideren batek eskatuta. Bileretako buru lehendakaria izango da edo, bertan ez balego, lehendakariordea. Biak falta badira, berriz, Batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak onartu beharko ditu. Horretarako, gutxienez batzordekide kopuruaren erdiak egon beharko du Batzarrean.

Idazkariak bilera-agiriak egingo ditu. Agiri horiek dagokien Liburuan jasoko dira idatziz.

### Banakako Lan-Sailak

\*Lehendakaria

22. Atala.- Lehendakariak bere gain du Elkartearen legezko ordezkariak. Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak aurrera eramango ditu. Era berean, aipaturiko bi sail horien burua izango da.

23. Atala.- Zuzendaritza-Batzordeari edo Batzar Orokorrari oso-osoan ez dagozkien aginpideak ere lehendakariaren esku egongo dira, batez ere honako hauek:

- a) Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak egiten dituzten bileren deiak egin eta bukatutzat ematea; bai batean eta bai bestean sortzen diren eztabaidak zuzentzea; eta botu-berdinketa gertatuz gero, botu ebazlea erabakitzea.
- b) Elkartearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza-Batzordeari proposatzea. Aldi berean, elkartearen zereginak bultzatu eta zuzentzea.
- c) Balioz erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortu daitezkeen premiazko arazoei irtenbideak ematea, eta ematea Zuzendaritza-Batzordeari lehenengo bilkuran horien berri.

AGURTZANE



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA SAILA  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Registro de Asociaciones

**\*Lehendakariordea**

24. Atala.- Lehendakariordeak Lehendakariari lagunduko dio, eta honen aldi bateko ezintasunak iraun bitartean ordezkatu du. Era berean, Lehendakariak berari emandako ahalmen guztiak izango ditu.

**\*Idazkaria**

25. Atala.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkartean sartzeko eskabideak hartu eta bideratzea, fitxategia eta Bazkideen zerrenda-liburua zaintzea, eta Agiri-Liburuaren zaintza eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, Elkarteen arloan indarrean dauden legezko erabakiak bete daitezten arduratuko da, Erakundearen agiri ofizialak zainduz, Elkarte-liburu eta agirien edukina egiaztatuz Zuzendaritza-Batzordearen hautaketari eta elkarteko egoitza aldatzeari buruzko beharrezko jakinarazpenak dagokion agintaritzarengana bideratuz.

**\*Diruzaina**

26. Atala.- Diruzainak, egindako sarrera eta ordainketen berri emango du, diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoeraren berri emango du. Guzti horiek Zuzendaritza-Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta honek Batzar Orokorrari, onar ditzan.

## **HIRUGARREN ATALBURUA**

### **BAZKIDEAK; ONARPEN-BIDEAK ETA MAILAK**

27. Atala.- Elkartekide izan nahi eta honako baldintzak hauek betetzen dituzten guztiak izan daitezke Elkarteko bazkide:

- a) Euskera, euskalkiak eta komikia euskeraz suspertu nahi izatea.
- b) 14 urte baino gehiago eta 30 urte baino gutxiago izatea.

28. Atala.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea. Idatzi hori bi bazkidek izenpetuko dute eta Lehendakariari zuzenduko zaio. Lehendakariak horren berri Zuzendaritza-Batzordeari emango dio eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena Elkartean onartu ala ez. Dena den, Batzar Orokorrari goi-deia egin ahal izango zaio.

29. Atala.- Batzar Orokorraren erabakiz, Elkarteak Ohorezko bazkide izendatu ahal izango ditu bazkide izateko baldintza guztiak bete arren elkartearen helburuak betetzeko bertaratu ezinako lagunak.

Bazkide hauek ohorezko dira soilik, eta beraz ez dira legezko bazkide, ez dute Elkarteko Zuzendaritza eta Administrazioarako lan-sailetan parte hartzeko eskubiderik ez eta inongo betebeharririk ere.

AGURTZANE

## BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK



EUSKO LAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ESKINTZA SAILA  
Bazkideen Errolda  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Registro de Asociaciones

30. Atala.- Bazkide orok honako eskubide hauek ditu:

1. Elkartee-legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta iharduerei aurka egiteko, aurka egindako erabakiaren edukina ezagutu edo ezagutzeko aukera egunetik hasi eta 40 eguneko epean.
2. Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarrera eta gastu-kontuen egoera, eta Elkartearen ekintzen garapenaren berri uneoro jakitekoa.
3. Batzar Orokorretan hitz egiteko eta botua emateko eskubidea erabiltzeko eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatekoa.
4. Elkarteko Estatutuon arabera, Elkarteko zuzendaritza-sailetan parte hartzeko eta sail horietarako hautagai nahiz hautesle izatekoa.
5. Indarreango legedian oharmandako Bazkide-zerrendan agertzeko eta Elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzeko.
6. Estatutuen eta, egonez gero, Barne-Ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-sailei eskakizunak eta kexak aurkezteko.
7. Elkartearen talde-ekintzetan parte hartzeko, eta bazkideen erabilerarako gauzak erabiltzeko (liburutegiak, elkarte-egoitza, e.a.). Zuzendaritza-Batzordeak, kasuan kasu, erabakitako moduan.
8. Zigor-neurriak hartu baino lehen, bazkideak idatziz adierazitakoa kontutan hartzeko eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiak berari azaltzeko. Neurri horiek hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien bete-beharrak ez betetzean oinarri dezake soilik.

31. Atala.- Bazkideen betebeharrak honako hauek dira:

1. Elkartearen helburuak iristeko lankidetzat gogoz ekitea.
2. Batzar Orokorretan ezarritako bazkide-saria ordaintzea, gastuak ordaintzeko.
3. Estatutu hauek eta Elkartearen zuzendaritza-sailek balioz hartutako erabakiak bete eta horiei men egitea.

### Zigor-arauak

32. Atala.- Estatutuak edo Batzar Orokorretan nahiz Zuzendaritza-Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik Zuzendaritza-Batzordeak bazkideak zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetera arte eskubideak kentzetik Elkartetik betirako egozterainokoa izan daiteke zigorra, beti ere 34 eta 37 bitarteko atalen arabera, biak barne.

Horretarako, Elkarteburuak zigorgarri izan daitezkeen jokabideak aztertzeko erabakia hartu ahal izango du. Azterketa horiek Idazkaritzak eramango ditu aurrera, Zuzendaritza-Batzordeari neurri egokiak hartzeko proposatuko diolarik. Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza-Batzordeak izango du, eta zigorra ezarri aurretik arazoduna zer dioen kontutan hartu beharko da.

Aipatu erabakiaren aurka beti ere arrazoitua - Batzar Orokorretan jotzerik izango da, 30.1 atalean aipatutako ekintzei ekitearen kaltetan gabe.

AGURRAN 

## BAZKIDETASUNA GALTZEA



EUSKO LAUDELARITZA  
GOBIERNO VASCO

ZUZENDARITZA SAILA  
Bazkideen Errolda

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Registro de Asociaciones

33. Atala.- Hona hemen Bazkidesuna galtzeko arrazoiak:

1. Heriotza.
2. Bazkidea nahita aldentzea.
3. Egotzi izana, Zuzendaritza-Batzordeak erabakitako zigorra dela eta, honetan:  
Estatutuotan Zuzendaritza-Batzordeak balioz hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki haustea behin eta berriro.

34. Atala.- Bazkideren bat aurreko atalean aipatutako azkenengo kasuan aurkituz gero, Elkarteburuak agin diezaioke Idazkariari, horien berri egokia lortzearren, aurretiazko eginbide batzuk egin ditzan. Eginbide horiek ikusita, Elkarteburuak ekintza bertan behera uztea, zigor-espeditari ekitea- 32. atalean oharmandako eran-, edota Elkartetik egozteko espeditari hasiera ematea erabaki dezake.

Azken kasu horretan, Idazkariak, egintzak egiaztatu ondoren, idatzi bat igorriko dio dagokionari, leporatzen zaizkion salaketen berri emanez. Salaketa horiei erantzuteko, berak aldi arrazoiak azaldu ahal izango ditu 30 eguneko epean. Epe hori amaituta, beti ere, Zuzendaritza-Batzordeak lehenengo bilkurara eramango du kasua eta bertan hartuko erabaki egokia. Horretarako Batzarkideetatik 2/3 eko "quoruma" beharrezkoa izango da.

35. Atala.- Elkartetik kanporatzeko erabakia doakionari jakinaraziko zaio, eta baita azaldu ere errekurtoa aurkez dezakeela hurrengo Batzar Orokor Berezian. Batzar horretarako deirik ez bada egiten hiru hilabeteren barruan, aipatu errekurtoa nahikoa izango da batzarra egiteko. Bien bitartean, Elkartearen lehendakariak dagokionari bazkide-eskubideak kentzea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza-Batzordeko kide bada, kargu hori utziarazi egin beharko dio.

Kanporatzeko espeditatea Batzar Orokorrari aurkeztuz gero, Idazkariak espeditarean laburpena egingo du, Zuzendaritza-Batzordeak interesatuak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza eman ahal izan diezaión Batzar Orokorrari, honek dagokion erabakia har dezan.

36. Atala.- Kanporatze-erabakia - beti ere arrazoiak emanda-, dagokionari jakinaraziko zaio eta honek, eskubideaz baliatuz, Auzitegiara jo ahal izango du bere ustez aipatu erabakia Legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

37. Atala.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan - berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako-, lehendik burutu gabe dituen eginkizunak betetzeko eskatuko zaio, hala badagokio.

AGURTZANE



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

ZUZENTZA SAILA  
Bazkunen Errolda  
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA  
Registro de Asociaciones

## LAUGARREN ATALBURUA

### SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

38. Atala.- Elkartearen sortze-ondarea 0 pta.koa da.

39. Atala.- Elkarateak, bere ekintzak aurrera eramateko, honako diru-baliabide hauek izan ditzake.

- a) Zuzendaritza-Batzordeak ezarritako sarrera-kuotak.
- b) Batzordeak berak erabakitako aldizkako kuota.
- c) Dazkan ondasunetatik ateratzen dituen ekoizpenak eta dagozkion eskubideak. Baita legez har ditzakeen diru-laguntza, ondare eta dohaintzak ere.
- d) Estatutuen helburuak kontutan harturik Zuzendaritza-Batzordeak erabakitako ekintza bidezkoek dakarzkiten irabaziak, beti ere estatutu hauetan jasotako helburuen esparruan.

## BOSTAGARREN ATALBURUA

### ESTATUTUEN ALDAKETA

40. Atala.- Estatutuen aldaketa.

Zuzendaritza-Batzordearen ekimenez edota bazkideen 1/5 eskatuta Zuzendaritza-Batzordeak hala erabakiz gero egin daiteke. Dena den, bi kasuetan Zuzendaritza-Batzordeak hiru bazkidek osatutako lantalde bat izendatuko du aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo horrek Zuzendaritza-Batzordeak ezarritako araei jarraitu beharko die eta batzordeak berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

41. Atala.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, Elkarteburuak egingo den lehenengo Zuzendaritza-Batzordearen aztergai-zerrendan sartuko du. Batzorde horrek egitasmoa onartu, edo berriz lantaldeari itzuliko dio atzera ere aztertzeko.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza-Batzordeak hurrengo Batzar Orokor Bereziaren aztergai-zerrendan sartzea erabakiko du edo horretarako propio bilerarako deia egitea.

42. Atala.- Batzarrerako deiarekin batera Estatutuen aldaketen testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa-proposamenon berri Batzar Orokorrari emango zaio, beti ere batzarra egin baino zortzi egun lehenago Idazkaritzan jaso badira.

Zuzenketak nahiz banaka nahiz taldeka egin daitezke. Idatziz egin beharko dira eta beste testu-aukera izan beharko du.

AGURTEANE

## SEIGARREN ATALBURUA



ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA EUSKO JAUFLARITZA  
GOBIERNO VASCO

43. Atala.- Elkarte honako hauengatik desegino da:

1. Bazkideen nahiz. Nahi hori horretarako bildutako Batzar Orokorrean ~~azaltzen diren~~ ZUZENTZA SAILA  
Bazkunen Errolda da eta bertan daudenetatik gehiengoaren botuak jaso beharko ditu.
2. Herri-legeen Bildumako 39. atalean azaltzen diren arrazoiez.
3. Epai bidez.

44. Atala.- Elkarte deseginez gero, erabakia hartu duen Batzar Orokorrak Kitapen-Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritzako Batzordekideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkide eta besterekiko Elkartearen zorrak ordaindu ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, honako elkarteari emango zaio: Eusko Ikaskuntzari, hain zuzen ere.

### **ALDI BATERAKO ERABAKIA**

Eratze-agirian behin-behingo izendatuak agertzen diren Zuzendaritza-Batzordeko kideak, egingo den lehenengo Batzar Orokorrearen esanetara jarri beharko dute beren izendapena.

### **AZKEN ERABAKIAK**

**LEHENENGOA.**- Zuzendaritza-Batzordea izango da Estatutu hauetan azaltzen diren aginduak ulertarazi eta Estatutu horien hutsuneak beteko dituen lan-sail aginteduna, Elkarteei buruz indarrean dauden legezko araupean beti, eta aurreko Batzar Orokorriari, onar dezan, egindako guztiaren berri emanaz.

**BIGARRENA.**- Estatutu hauek Zuzendaritza-Batzordeak eta Batzar Orokorrak bakoitzak berari dagokion aginte-esparruan, balioz hartzen dituzten erabaki-bidez aldatuko dira, 5. Atalean aipatutakoarekin bat.

**HIRUGARRENA.**- Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak Barne-Araudtegi bat onartu ahal izango du. Horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetakoko aginduak aldatuko.

AGURTZANE

Estatutuak ikustatu eta onartu ondoren, estatutuak onartu eta gero, estatutuak sortarazten Martxoaren 77/1.986-ko Dekretuaren bidez, Eusko Ikaskuntzari gainontzeko matrikularitate-erregistroaren arauetarako.

Visados los presentes Estatutos, a los efectos determinados en el Decreto 77/1.986, de 25 de Marzo del Gobierno Vasco, por el que se crea el Registro General de Asociaciones y demás normativa concordante.

1.994-5-24

Jalleiz

En Vitoria a 24 MAYO 1994

ERROLDEKO ARDUREGIA

EL ENCARGADO DEL REGISTRO

Mi del Plenum Pana de los Heros

014.617/94